

Hizkuntza Politikaren Plan Estrategikoa (2016-2019) Partaidetza Prozesua

Bilera-mota	Lurralde-bilera
Eguna	2016-10-24
Ordua	17:00-19:00
Lekua	Tafalla, kultur etxea

Bertaratutakoak	
Maite Garbayo Valencia (Erriberriko zinegotzia)	Elena Luna (Tafallako ikastola)
Kati Iglesias (Tafalla ikastola)	Ana Flamerike (Tafallako euskara teknikaria)
Iñaki Iriarte (Lergako alkatea)	Arturo Goldarazena (Tafallako alkatea)
Iñaki Lerga (Tafallako zinegotzia)	Santi Jusué (Tafallako ikastola)
Rebeka Lekunberri (Garinoango zinegotzia)	Haizea Lizarbe (Tafallako zinegotzia)
Pedro Leralta (Tafallako Udala – Mairagako Mankomunitatea)	Fernando Larraiotz Perez (Zarrakazteluko eskola)

Euskarabidetik: Eduardo Aldasoro eta Anuntxi Etxetxipia

Elhuyarretik: Jon Abril

Gai zerrenda
- Ongietorria - Elkar ezagutzea - Plan Estrategikoaren hasierako idatzaldia aurkeztea - Lanketa: talde-lana - Balorazioa eta agurra

Bileran egindakoa

Tafallako alkateak, Arturo Goldarazena, eta Iñaki Lerga euskara zinegotziak ongi etorria egin dute eta elkar ezagutzeko izen-erronda bat egin dugu. Eduardo Aldasorok, Euskarabideko teknikariak, Plan Estrategikoaren prozesuaren nondik norakoak eta Planaren markoa azaldu du eta ondoren, Elhuyarreko teknikaria den Jon Abrili eman dio hitza, planaren helburuak aurkezteko. Aurkezpena egin bitartean, parte-hartzaileek lanketa-fitxa izan dute eskuartean oharrak jasotzeko. Lanketa-fitxak honakoa jasotzen zuen: *Erantsiko nuke.../ Zalantza eragiten dit.*

Aurkezpenaren ondoren, talde txikiak egin ditugu eta galdera hauen inguruan jardun dugu lanean:

- Zerbait erantsiko zenuke? Zerbait faltan bota duzue?
- Zerbaitek zalantza eragin dizue?



Ondoren, talde handian konpartitu dugu talde txikietan hausnartutakoa.

Saioa bukatzeko, balorazioa egin dugu eta hurrengo urratsak zein izango diren gogoratu ditugu.

Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak

Erantsitakoak edo azpimarratzekoak diren alderdiak:

- Eskola-eremuko ekintzak: Eskola-orduetan antolatzen diren txango eta ekintzak euskaraz egin, euskara arlo ezberdinetan erabiltzen dela ikusteko.
- Diskriminazio positiboz jokatu eremu ez-euskaldunean: laguntza eta diru-laguntza gehiago.
- Diru-laguntzen politika zehaztu.
- Euskara derrigorrezko ikasgaia izatea hezkuntza-eredu guztietan. Zama kendu, batez ere, selektibitateari begira.
- Prestigioa indartu.
- Euskara erabilgarri egin, ikusarazi euskara jakiteak zerbaiterako balio duela, plus bat dela.
- Aurrekontu erreala
- Udalekin hitzarmenak indartu. Eskualde-izaera aztertu.



Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak

Zalantza eragiten duten alderdiak:

- Plan Estrategikoaren printzipioak behar bezala azalduta dauden zalantza, batez ere herritarren % 34k kontrako jarrera duela ikusirik.
- Nola eman prestigioa euskarari eta despolitizatu.
- Euskal hiztunak garela elkarren artean nola jakin, nola erraztu euskaldunon arteko komunikazioa.
- Euskara erakargarri egiteko beharra arlo sozioekonomikoarekin lotu.
- Nola egin Vasqueancearen Legetik Euskararen Legera bitarteko aldaketa.
- Diskurtsoa eskualdetara eta herrietara egokitu behar da. Modulatu, gure kontrara etor ez dadin. Diskurtso hezitzailea garatu.
- D ereduaren aldeko kanpaina beharrezkoa da.
- Euskara gai transbertsala bihurtu: kulturean, kirolean, gazterian, berdintasunean...

Bileraren balorazioa

Bakoitzak hitz batez baloratu du saioa eta saioan landutakoa:

- Berria
- Itxaropena (3)
- Interesgarria
- Bazen ordua
- Anbizio handikoa

Eta saioaren balorazioa orokorra egiteko, balorazio-orria bete dute.
Hona emaitza:



BILERAREN BALORAZIO-ORRIA (lurralde-bilerak)

BALORAZIOA VALORACIÓN				
BILERAREN ORDUTEGIA ETA IRAUPENA EGOKIAK IZAN DIRA			4	9
GAIAK LANTZEKO MODUA GUSTATU ZAIT		2	6	5
BILERAREKIKO ESPEKTATIBAK BETE DIRA			7	6
BILERA AURRETIK JASOTAKO INFORMAZIO NAHIKOA IZAN DA	1	1	7	4
GIROA ATSEGINA IZAN DA			2	11
PLAN ESTRATEGIKORAKO EKARPEN INTERESGARRIAK EGIN DIRA	1		5	7
GAUZA BERRIAK IKASI DITUT		1	7	5
BILERAN PARTE-HARTZEAK AURRERA BEGIRAKO URRATSETARAKO MOTIBATU EGIN NAU		2	4	6
HARREMAN ETA SARE BERRIAK ERAIKI DIRA		5	3	4
BILERAN PARTE HARTZEAK ASETU NAU		1	5	7

EGIN NAHI DITUZUN OHARRAK:

- Zorte on
- Aurretik plana ezagutzea komeniko litzateke, ekarpen gehiago egiteko
- Tafallako eragile asko faltan bota ditut: AEK, EHE, Baigorri, gazteak...